

### Iparaldeko ikastolen egutegiak salgai

Iparaldeko ikastolek urtero egin ohi duten bezala, 2024ko egutegia (**Seaska**) salgai jarri dute. Erosi nahi izanez gero, **Ikastolako idazkaritzan** egongo dira **salgai**. Bakoitzaren salneurria, **4 €**.



### Neguko katalogoa

Urtero bezala, aurten ere Ikastolen Elkarteak [Neguko katalogoa](#) argitaratu du eskaintza interesgarriekin. Eskatera egin nahi baduzue, [usurbil@ikastola.eus](mailto:usurbil@ikastola.eus) helbidera idatziz egin dezakezue. Neguko oporrak baino lehen jaso ahal izateko, abenduaren 4a baino lehen eskatu beharko da.



### Eskia denontzat

Aurten ere, neguko giroa aprobetxatuz, LH 5. mailatik gorako ikasleei zuzenduriko eski-aldia antolatu da. Bi irteera eskainiko dira:

- ❖ egun berean joan-etorrikoa, martxoaren 2an, Arette-ra
- ❖ asteburu osokoa, otsailaren 17tik 18ra, Candanchura



Informazio gehiago aurrerago jasoko duzue.

### Jangela abenduaren 20an

Abenduaren 20ko eguerdian DBH, LH eta HH 3-6 urtekoen eskolak 12:30ean amaitzen direnez, jangelako bazkaldarrak **etxera bakarrik** joatea nahi izanez gero, **baimena** [usurbil@ikastola.eus](mailto:usurbil@ikastola.eus) helbidera idatziz eman beharko da.

Bestalde, eguneroko bazkaldarrei gogorarazi nahi zaie, abenduaren 20ean **jangelako zerbitzua erabili behar ez badute**, ahalik eta azkarren [usurbil@ikastola.eus](mailto:usurbil@ikastola.eus) helbidera idatziz **jakinarazi** behar dutela.



## Neguko zinea

Datorren igandean, abenduak 10, 17:00etan, "Abentura erraldoia" eskainiko da Sutegin. [Informazio gehiago...](#)



# HAUR HEZKUNTZA

## 0-1 urteko haur eskolako gela bilera

Abenduaren 19an, asteartea, arratsaldeko 17.00etan, 0-1 urteko haurren gela bilera izango da (0-1 gelan).

Bilera modu lasaiagoan egite aldera haurrik gabe etortzea eskatzen dizuegu.



## Txistorra ogitartekoak

Aurten ere, DBHko ikasleak prestatuko dizkigute azken eguneko (abenduak 20) txistorra ogitartekoak. Lortzen duten dirua ikasbidaiarako erabiliko dute.

Ogitarteko bakoitza **1,5 euro** da eta dirua abenduak 13rako ekarri behar da ikastolara. Tutoreak jasoko du dirua.



# LEHEN HEZKUNTZA

## Irteera-kobrantzak

### ❖ LH6

Datorren ostiralean, abenduaren 15ean, LH 6. mailako ikasleek Zumaiaara egindako irteeraren kostua kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten dugu.

Kobrantza **7,80 €** izango da, hona hemen zehaztapenak:

- Trena: 3,05 €
- Sarrera: 4,75 €
- **Guztira: 7,80 €**



## ❖ LH2

**Datorren ostiralean, abenduaren 15ean, LH 2. mailako ikasleek Orioko Txurruka aterpetxera** egingo duten irteeraren 1. zatia kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten dugu. Kobrantza **20 €** izango da.

## ❖ LH3

**Datorren ostiralean, abenduaren 15ean, LH 3. mailako ikasleek Irrisarriland-era** egingo duten irteeraren 1. zatia kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten dugu. Kobrantza **30 €** izango da.

## Hatz 10 kobrantza

Hilabete honetako erreziboarekin batera, **Hatz 10 mekanografia** ikastaroaren zenbatekoa kobratuko zaie **LH4, 5 eta 6. mailako ikasleei**. **Kostua 5 €** izango da.



## LH5eko familiei zuzendutako oharra

Abenduaren 14ean, osteguna, ikasleek orain arte ikasi dutenarekin EMANALDI bat egingo dute. Emanaldia ikasleen gelan izango da eta bertan aitona-amonak egotea gustatuko litzaiguke!

14:45tan Ageri-aldeko eraikinean elkartuko gara. Gelara igotzeko igogailua erabiltzeko aukera izango da.

EMANALDIA arratsaldeko 15:00etatik 16:00tara izango da.



## Txistorra ogitartekoak

Aurten ere, DBHko ikasleak prestatuko dizkigute azken eguneko (abenduak 20) txistorra ogitartekoak. Lortzen duten dirua ikasbidaiarako erabiliko dute.

Ogitarteko bakoitza **2 euro** da eta dirua abenduak 13rako ekarri behar da ikastolara. Tutoreak jasoko du dirua.



## Mugikorren inguruko galdetegia

[Esteka honetan](#) LH4, LH5 eta LH6 mailetakoko gurasoei galdetegi anonimo bat bidaltzen dizuegu mugikorraren erosketa eta erabileraren inguruko informazioa jasotzeko asmoz. Bete dezazuen eskatzen dizuegu, minutu bat da eta denon iritzia izatea oso garrantzitsua da.



Bestalde, urrian zehar LH5-LH6 eta DBH1eko ikasleek mugikorren inguruko lanketa egin zuten Miren Rosekin eta gurasoek ere aukera izan zenuten gelan egindakoaren informazioa Miren Rosen eskutik zuzenean jasotzeko. Maila horietako gurasoek beraz, gelan jaso eta egindako lanketaren aurkezpena ere jasoko duzue emailaz.

# BIGARREN HEZKUNTZA

## Ebaluazio-txostenak

**Astelehenean, abenduaren 11n**, igoko dira ebaluazio txostenak Alexia aplikaziora. Ondoren, tutoreak kontaktuan jarriko dira guraso-bilerak zehazteko.



## Irteera DBH1

**Abenduaren 14ean**, osteguna, DBH1eko Biologia/Geologiako ikasleak Eureka Zientzia museora joango dira. MUGI txartela beharko dute trenerako.



## Irteera-kobrantza

### ❖ DBH1

**Abenduaren 15ean, DBH 1. mailako ikasleek Arantzako aterpetxera** egingo duten irteeraren 1. zatia kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten dugu. Kobrantza **30,00 €** izango da.



### ❖ DBH3

**GAUR, DBH 3. mailako ikasleek La Arboledako aterpetxera** egingo duten irteeraren 1. zatia kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten dugu. Kobrantza **30,00 €** izango da.



## Material-kobrantza

Abenduaren 16an, **hileko erreziboarekin batera**, DBHko ikasleei **2023/24** ikasturteko **eskola-materiala** kobratuko zaie.

Materialaren kostua, aukeratutako hautazkoen arabera, ondokoa da:



### **DBH 1:**

Teknologia eta digitalizaziorako hastapenak: 39,70€

Osasun fisikoa eta emozionala: 34,60€

Frantsesa: 34,60€

### **DBH2:**

Frantsesa: 38,93€

Ikus-entzunezko tailerra: 39,93€

Sakontze tailerra: 40,93€

Osasun fisikoa eta emozionala: 38,93€

### **DBH3:**

Frantsesa: 38,40€

Osasun fisiko eta emozionala: 38,90€

Kultura klasikoa 39,80€

Sakontze tailerra 40,40€

### **DBH4:**

Material kostuaren xedapena ikaslea bakoitzari gelan entregatu zaio.

Familiaren batek **epeka ordaindu** nahiko balu, mesedez, **deitu dezala idazkaritzara abenduaren 14a baino lehen.**

## DBH1 mailako familientzat oharra

Ikasturte hasieran, zuen seme alabek Ikastolako zereginetarako Chromebooka jaso zuten. Aurten berandu samar badator ere, urtero Chromebookaren erabilera egokia izan dadin, familiei dokumentu bat partekatzen zaizue. Bertan, besteak beste, Chromebookaren helburua, erabilera egokirako arauak, zaintza, segurtasuna eta konponketa moduaren inguruko informazioa ematen da.



Hau horrela, [dokumentu hau](#) partekatzen dizuegu zuen seme-alabekin irakur dezazuen eta azken orrian, guraso eta ikasleak gailuen erabilera politikaren esku-liburuaren onarpena sinatu dezazuen.

Beraz, dokumentua sinatu eta azken orria tutoreari **abenduaren 15a** baino lehen itzultzea eskatzen dizuegu.

## Mugikorren inguruko lanketa

Urrian zehar LH5-LH6 eta DBH1eko ikasleek mugikorren inguruko lanketa egin zuten Miren Rosekin eta gurasoek ere aukera izan zenuten gelan egindakoaren informazioa Miren Rosen eskutik zuzenean jasotzeko. Maila horietako gurasoek beraz, gelan jaso eta egindako lanketaren aurkezpena ere jasoko duzue emaillez.

